



modus operandi

Modus Operandi taldearen bezalako zerbait aspaldidanik zegoen Iñaki Ortiz de Villalba kantariaren buruan. Betagarri taldean zegoenean ere bazuen balizko bakarkako musika proposamena inoiz ez zena gauzatu. Eta beste ideiak oraindik ez direnak gauzatu. Baina Iñaki "Beta"-k argi izan du beste talde bat antolatu nahi zuela. 2017ko uztailean Andoni "Matxain"-i (Lauroba) helarazi zizkionean kantuen kezka, taldearen egituraketa hasi zen. Vengeance taldeko Enrikko Rubiñosi eta Ruben Antoni belarria berotu ondoren sanferminetan, Iñaki "Beta"-k talde berriaren sorkuntza aldarrika zezakeen. Julen Barandi (Izaro) eta Gonzalo Fernandez de Larrinoa (The Hot Wok) izan ziren azkenak iristen taldera. Odi-sea bat izan zen izen egoki bat aurkitzea. Izena jarri baino lehenago zeuden kantua bukatuta eta estudioa sartzeko. Gonzalok diskoa grabatu eta taldea utzi du. Zein da Modus Operandi taldearen estrategia? Ska eta rocka jai giroarekin eta engaiamenduarekin nahastu eta musikaren oreka bilatu zuzenekoetan.

Modus Operandi taldearen diskoak izenburu berbera hartu du. "Zatoz gugaz" kantua ematen dio hasiera diskoari eta lehen 15 segundoetan taldeak argi utzi ditu bere musika irizpidea nondik doan. Bateria, gitarra, tronpeta eta tronboiaren jokoak lehen proposamena helarazten dio entzuleari: zatoz gurekin eta sartu gure zirimolan. Eta diskoak barrika beretik edaten emango dio jarraitzaileari. Dantza, festa eta letra konprometituak bere inguruarekin. Modus Operandi taldearen modus operandiaren gako hor dago. Modus Operandi n ska melódicoahasketa anizkoitzaren ondorioa da. Ska melodiko azkarra pausatuagoarekin, rock indartsua amultsuarekin, brit-ska, Balkanetako musika zitzu euforikoan, soularen ukituak, reggaearen arima. Disko bizi eta dantzagarria. Disko konprometitu eta hausnartzailea. Disko alaia eta bizipozaren lanbroarekin atondua.



ZATOZ GUGAZ

Ska eta soul-rocka uztartzen ditu rap-metalaren ukituekin. Freskoa, zuzena eta gure kontzertuan barrena bidaiatzera gonbidatuko zaitu.

GORA GURE BIHOTZAK

Ska eta rock melodikoaren artean mugitzen da. Mezu argia eta soziala. Ezin dugu galdu itxaropena giza eskubide duinak izateko.

EZETZ EZ DA

Emakumearen askatasuna eta duintasuna du ardatz nagusi, itsaskorra eta british-ska delako doinuetan koka genezakeena.

CANTARÉ

Bizitza profitatzeari erreferentzia egiten diogu. Erritmo biziez josita, ska eta erritmo balkanikoen zertzeladaz jantzirik dator.

MEMORIAREN ZERUAN

Frankismoaren biktimek memoriaren zeruan leku bat izan dezaten oihukatzen dugu. Ska klasikoaren ildotik doan estrofak lelo rock batek lagun duena.

ESPERANTZAZ JANTZITA

Mediterraneoko uretan bizitza galtzen dutenen omenez. Ska eta rock erritmoetan murgiltzen gaitu.

LA REVOLTA DELS SOMRIURES

Kataluniako herriak libre izateko duen eskubidea aldarrikatzen duen kantua dugu. Metalen erritmo biziak, ska eta rockaren arteko jokoak ez zaitu mugitu gabe utziko.

IBILTZEAN

Gure helburuak lortzeko eta bidean askotan ditugun zailtasunak ditu hizpide letrak. Pop, ragga, ska eta rock ukitzen dituen kantua da.

GURE ESKU

Euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeke dugun eskubideak dihardu letrak. Abesti alaiak eta dantzagarriak ska eta festa uztartzen ditu.

YOU ALWAYS BE MY LOVE

Amodiozko kantu laua egin dugu, ingelesez. Hard-core melodikoa eta ska dantzagarriaren ertzetatik mugitzen den kantu melodikoa.

2018ko irailean grabatu da Getxoko Panpot estudioan (Alberto Macias) eta Bilboko TAOM estudioan (Jagoba Ormaetxea). Jagoba Ormaetxea: hammond, teklak, nahasketak, ekoizpena eta masterizazioa.

Iñaki Ortiz de Villalba: hitzak.

Onintza Enbeita: hitzak (Memoriaren zeruan, Zatoz gugaz, Gure esku)

Agnes Toda: hitzak (La revolta dels somriures).

Txarly Brown: diseinua.

Eider Iturriaga: argazkiak.

MODUS OPERANDI

Iñaki Ortiz de Villalba: ahotsa

Andoni Garcia "Matxain": gitarra

Julen Barandi "Txiki": baxua

Enrikko Rubiños: bateria

Ruben Anton: tronpeta

Gonzalo Fdez de Larrinoa: tronboia

ritxi aizpuru + modus operandi (2018ko azaroaren 7a)

   modusoperandi


MUSIKA IDEIAK    
Telf. 659 975 820 - 618 072 026 / 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus